Mundutik euskarara mikroipuinez

Itzulpen lantegia

Literaturian

2018ko maiatzak 25 eta 26



EIZIE

euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea

Sarrera

Aurtengo udaberrian ere, maiatzeko azken asteburuan, itzulpen tailerra antolatu zuen EIZIEk **Zarauzko Literaturian**. Aurreko urteetako poesia azpititulatzeko tailerra berritu, eta mikroipuinak izan genituen aurtengo honetan langai.

Itzulpen-lantegia

Ostiralean, hilak 25, bi orduko **lantegia** egin genuen Etxezabalan. Parte-hartzaileek aurrez etxean itzulitako mikroipuinak izan zituzten hizpide eta eztabaidagai. Frantsesa, katalana, italiera, portugesa, gaztelania, alemana, ingelesa, errusiera eta arabiera sorburu hizkuntzetatik, **egile hauen lanak** ekarri genituen euskarara: **Félix Fénéon, Marie-Reine Castonguay, Pere Calders, Gianni Rodari, Gonçalo M. Tavares, Gabriel García Márquez, Régis Jauffret, Rocío Peñalta Catalán, Alejandra Pizarnik, Enrique Anderson Imbert, Juan Rodolfo Wilcock, Bertolt Brecht, Cristina Peri Rossi, Oscar Wilde, Lydia Davis, Dave Eggers, Daniil Kharms eta Mahmoud Shukair**.

Itzultzaile lanetan aritu ziren **Aroa Uharte, Ines Castiella, Eneko Arzallus, Amelia Pérez, Lamia Filali-Mouncef, Arantzazu Royo, Ibai Sarasua, Carmen Valois, Sara Goiria, Amaia Apalauza, Ane Garcia, Bego Montorio, Iñigo Roque** eta **Garazi Ugalde**.

Irakurraldi musikatu eleaniztuna

Larunbat goizean, hilak 26, jendaurreko irakurraldia prestatzen aritu ginen buru-belarri. Eguerdiko ordu batean eskaini genuen **Mundutik euskarara mikroipuinez** irakurraldi musikatu eleaniztuna Antoniano aretoan, hamaika esku eta ahotsetara, **Iñigo Bereziartua gitarra-jotzailearen laguntzaz**, eta jatorrizko hizkuntzetan irakurtzera hurbildu ziren zarauztarren parte-hartzearekin. **Susan Bremner** ingelesez aritu zitzaigun, **Susanna Llavina** katalanez, **Kathrin Cabianca** alemanez eta **Sidya Bodian**, berriz, frantsesez.

Esker mila guztiei!

Garazi Ugalde Pikabea

Lydia Davis

SAGUAK

Saguak gure hormetan bizi dira, baina ez dute gure sukaldean muturrik sartzen. Kontent gaude, baina ez dugu ulertzen zergatik ez diren sartzen gure tranpaz beteriko sukaldean auzokoen sukaldeetan sartzen diren bezala. Nahiz eta kontent egon, ernegatuta ere bagaude, saguek gure sukaldeak zerbait txarra balu bezala jokatzen baitute. Kontua are harrigarriago egiten duena da gure sukaldea auzokoenak baino askoz narrasagoa dela. Janari gehiago dago gure sukaldeko lurrean botata, ogi-apur gehiago gure sukalde-gainekoan eta ostikoz bidalitako tipula hondakin lohiak armairuen pean. Izan ere, gure sukaldean han eta hemen zenbat janari dagoen ikusita, bururatzen zaidan gauza bakarra da janariak saguak menderatu dituela. Sukalde txukun batean erronka itzela da haientzat gauero-gauero janari nahikoa aurkitzea udaberria heldu arte. Pazientziaz bilatzen eta marraskatzen dute, orduak joan orduak etorri, ase arte. Gure sukaldean aurkitzen dutena, ordea, hain da neurriz kanpokoa, ezen ezin baitiote aurre egin. Baliteke pauso batzuk ematen ausartzea, baina bereheala itzuliko dira beren zulora ikuskizunak eta usainak asaldatuta, behar bezalako janari-bilaketarik egiteko gai ez izatearren deseoroso eta lotsatuta.

Itzulpena ingelesetik: Sara Goiria Egidazu

Jatorrizko testua: *The Mice*

GALDUTAKO GAUZAK

Galduta daude, baina galdu gabe diraute munduan nonbait. Txikiak dira gehienak, baina badira bi handiago ere, jaka bat eta txakur bat. Gauza txikien artetik, eraztuna da bata, botoia bestea. Nigandik eta nagoen lekutik galdu dira, baina ez dira desagertu ere. Beste nonbait daude, eta beste norbaitentzat daude hor, beharbada. Eta beste norbaitentzat hor ez badaude ere, eraztuna ez da bere horretan erabat galdu, hor baitago halere, soilik ez ni nagoen lekuan; eta botoia ere, hor, halere, soilik ez ni nagoen lekuan.

Itzulpena ingelesetik: Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *Lost things*

Oscar Wilde

DIZIPULUA

Nartziso hil zenean, haren plazeraren urmaela, kopa bete ur geza, malko gazi kopa bihurtu zen, eta ninfak basoan barrena negar zotinka agertu ziren, urmaelari abestera eta hura kontsolatzera.

Ikusi zutenean urmaela, kopa bete ur geza, malko gazi kopa bihurtu zela, beren xerlo berdeak askatu zituzten, urmaelari intzirika, eta esan zuten: «Ez da harritzekoa zu Nartzisorengatik horrenbeste nahigabetzea, hain zen ederra!»

«Nartziso ederra zen, ala?» esan zien urmaelak.

«Nork daki, bada, zuk baino hobeto?» erantzun zuten ninfek. «Gurekin ezikusia egiten zuen beti, baina zu bilatu egiten zintuen, zure urertzean etzan ohi zen, zuri begira, eta zure uren ispiluan islatzen zuen bere edertasuna».

Urmaelak erantzun zien: «Baina nik Nartziso maite nuen nire urertzean etzanda zegoenean, niri so, haren begien ispiluan ikusten nuelako nire edertasunaren isla».

Itzulpena ingelesetik: Ibai Sarasua Garcia

Jatorrizko testua: *The disciple*

Dave Eggers

BERA EZAGUTU OSTEAN HEGAN HASI ZEN GIZONA

Ezagutu zuenean oso gustuko izan zuten elkar, gauzak hobeto entzuten zituen, eta begietan mundu fisikoaren lerroak lehen baino garbiagoak zitzaizkion. Argiagoa zen bat-batean, kontzienteagoa, eta egunak zer gauza berrirekin beteko ote zituen hasi zen pentsatzen. Aurretik jakin-mina apenas piztu zioten eta orain erabat premiazkoak ziruditen aukerei erreparatu zien, ezinbestean, pentsatu zuen, kide berriarekin egin beharrekoak. Aparailu arinen gainean hegan egin nahi zuen harekin. Planeagailuek, paraxutek, hegazkin ultra-arinek eta delta hegalek beti piztu izan zioten jakin-mina, eta orain sentitzen zuen hura izango zela haien bizitza berriaren alderdi bat: asteburu eta oporretan han-hemendik hegan zebilen bikotea izango zirela, hegazkin txiki batean. Terminologia ikasiko zuten. Elkarteetan izena eman. Furgoneta antzeko bat izango zuten, edo karabana handi bat, haien gailu berriak gordetzeko, tolestutako hego malguekin batera, eta leku berrietara gidatu eta gainetik begiratuko zuten. Berari interesatzen zitzaion hegaldia lurretik gertukoa zen: Lurretik 1000 oin baino gutxiago goratzen zena. Bere azpian gauzak azkar mugitzen ikusi nahi zituen, beheko jendea agurtzeko gai izan, ñuak korrika ikusi eta izurdeak zenbatu, itsasertzetik urruntzen ziren artean. Espero zuen bere kideak ere hala hegan egin nahi izango zuela. Hainbeste lotu zitzaion pertsona hori eta hegaldi hori eta bizitza hori elkarrekin kiribiltzeko ideiari, ezen ez baitzekien zer egingo zuen ez bazen gauzatzen. Bitxia zen, ordea, pentsatu zuen, hegaldi horren ideia berea zen arren, eta plan berri horren indar abiarazlea bera izanda ere, beste pertsona bat behar izatea, pertsona berri hura behar izatea bere munduan, nahi zuen hori egiteko. Ez zuen hegaldi hori bakarrik egin nahi; nahiago zuen ez egin, hura gabe baino. Baina hegan egiteko eskatu, eta kideak erreparoa agertzen bazuen, edo ez bazegoen hartarako inspiratuta, geratuko al zen harekin? Ba al zuen aukerarik? Erabaki du ezetz. Hark ez badu karabana gidatzen, hegoak kontuz tolestuta, berak alde egin beharko du, irribarre eta alde, eta atzera begiratuko du gero. Baina baldin eta beste kide bat topatuko balu, badaki bere plana ez dela hegan egitekoa izango. Beste plan bat izango da, beste pertsona batekin, Lurretik gertu hegan egitera harekin baino ez baita joango.

Itzulpena ingelesetik: Ane Garcia

Jatorrizko testua:
About The Man Who Began Flying After Meeting Her,
How we are hungry liburuan

Pere Calders

TREN ESPRESA

Inork ez zion esan nahi zer ordutan etorriko zen trena. Hain ikusten zuten maletaz zamatua, pena ematen baitzien esatea han sekula ez zela izan ez trenbiderik ez tren-geltokirik.

Itzulpena katalanetik: Amaia Apalauza Ollo

Jatorrizko testua: *L'exprés*

SEKULA EZ DA JAKITEN

Autoaren lau gurpiletatik, bazen bat alderantziz biratzen zena. Onena zen, ordea, bera saiatzen baitzen besteok jota utziak gintuen bihurgunetik urruntzen.

Itzulpena katalanetik: Amaia Apalauza Ollo

Jatorrizko testua: *No se sap mai*

HISTORIA MILITARRA

Agindu izan balie leihotik salto egiteko, jaramon egin izango zioten, pozarren ia, konfiantza itsua baitzuten berarengan.

Harik eta egun batean leihotik salto egiteko agindu zien arte; orduan, denek desertatu zuten, halako gauzak eskatzen dituen gizon bat ez baita fidatzekoa.

Itzulpena katalanetik: Amaia Apalauza Ollo

Jatorrizko testua: *Història castrense*

PASARTEAK

Badira sekula egin behar ez diren gauzak,
ez egunez,
ez gauez,
ez itsasoan,
ez lurrean,
gerra adibidez

Jatorrizko testua:
Ci sono cose da non fare mai

Akatsak beharrezkoak dira,
ogia bezainbeste, eta askotan ederrak:
Pisako dorrea, adibidez.

Jatorrizko testua:
Gli errori

Nahiko nuke denok irakurriko bagenu
ez literato edo poeta bihurtzeko
esklabo gehiagorik ez izateko baizik.

Jatorrizko testua:
Vorrei que tutti leggessero…

Merezi al du
haur batek negarrez ikastea
barre eginez ikas dezakeena?

Jatorrizko testua
Vale la pena…

Itzulpena italieratik: Eneko Arzallus

KANPAIEN GERRA

Bazen behin gerra handi eta ikaragarri bat, eta gerra horrek alde bateko zein besteko soldaduak hiltzen zituen. Gu hemengo aldean geunden; gure etsaiak, hangoan; eta gau eta egun elkarri egiten genion tiro. Gerra hori hain luzea izan zen, ezen azkenean amaitu egin ziren kanoiak egiteko brontzea, baionetak egiteko burdina eta abar.

Gure komandanteak, Bonba Danbadazale Estrajeneralak, kanpai guztiak kanpandorreetatik jaisteko eta denak batera urtzeko agindua eman zuen, kanoi oso handi bat egin nahian. Kanoi bakarra izango zen, baina gerra kolpe batez amaituko zuen.

Kanoi hura altxatzeko, ehun mila garabi behar izan zituzten; eta, fronteraino garraiatzeko, laurogeita hamazazpi tren. Estrajenerala pozarren zegoen:

—Nire kanoiak tiro egin orduko, etsaiak korrika hasi, eta ilargira iritsiko dira! —zioen.

Azkenean, egun handia iritsi zen. Kanoi erraldoia etsaiei begira jarri genuen (baina aurretik kotoiz estali genituen belarriak, beldur baikinen danbadak tinpanoak eta Eustakioren tronpa ere apurtuko ote zizkigun).

Bonba Danbadazale Estrajeneralak tiro egiteko agindua eman zuen:

—Sua!

Artillari batek botoi bat sakatu zuen; eta, ezustean, frontean, alde batetik bestera, kanpai-hots ikaragarria entzun zen:

—Dilin! Dalan!

Kotoia atera genuen belarrietatik, hobeto entzuteko.

—Dilin! Dalan! —burrunbatzen zuen kanoi erraldoiak—. Eta oihartzuna mendietan eta haranetan zehar zabaltzen zen.

—Dilin! Dalan!

—Sua! —oihukatu zuen Estrajeneralak, bigarren aldiz—. Sua, gizona, sua!

Artillariak berriro sakatu zuen botoia, eta, berriro ere, lubaki guztietara iritsi zen kanpai-kontzertu alaitsua. Bazirudien aberriko kanpai guztiak batera ari zirela. Estrajenerala, amorratuta, tiraka hasi zen iletik, buruan ile bakarra utzi zuen arte.

Ondoren, isilunea etorri zen. Eta, bat-batean, frontearen beste aldetik, allegro zalapartatsua bota ziguten, seinale bat izango balitz bezala:

—Dilin! Dalan!

Jakin ezazue etsaien komandanteari ere, Morteskial von Bonba Danbadungen jeneralari, ideia bera bururatua zitzaiola: herriko kanpaiak erabiltzea, kanoi erraldoi bat egiteko!

—Dilin! —burrunbatzen zuen gure kanoiak.

—Dalan! —erantzuten zuen etsaienak.

Eta soldaduak, armada bietakoak, lubakietatik irten, eta elkarrekin dantzan eta oihuka hasi ziren:

—Kanpaiak ari dira, kanpaiak! Festa, festa! Bakea hasi da!

Estrajenerala eta Morteskial komandantea autoan sartu, eta ahalik eta urrunen abiatu ziren, gasolina agortu arte. Kanpai-hotsak, jakina, haraino ere jarraitu zien.

Itzulpena italieratik: Amelia Pérez

Jatorrizko testua: *La guerra delle campane*

Bertolt Brecht

FORMA ETA MAMIA

K. jauna margolan bati begira zegoen, zeinak forma oso bitxia ematen baitzion zenbait gauzakiri. Esan zuen: «Artista batzuek, mundua behatzen dutelarik, filosofoen antzera jokatzen dute. Formarekiko ahaleginean, mamia galtzen dute. Behin lorezain batentzat egin nuen lan. Kimatzeko aiztur bat eman, eta ereinotza kimatzeko agindu zidan. Loreontzi batean zegoen zuhaitza egun seinalatuetan uzten zuten. Horretarako, bola baten forma eduki behar zuen. Berehalaxe hasi nintzen kimu bihurriak mozten, baina bola forma lortzeko eginahalak eginagatik, alfer-alferrik zen. Orain albo batetik, gero bestetik, gehiegi ebaki nuen. Azkenik, forma hartu zuenean, txiki-txikia zen bola». Lorezainak etsia harturik esan zuen: «Ondo, hor dago bola, baina non dago ereinotza?»

Itzulpena alemanetik: Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *Form und Stoff*

BA OTE DAGO JAINKORIK?

Norbaitek K. jaunari galdetu zion jainkorik ba ote dagoen. K. jaunak erantzun zion: «Aholku hauxe emango dizut: hausnartu, galdera horren erantzunaren arabera zure jarrera aldatuko ote litzatekeen. Aldatuko ez balitz, orduan galdera bertan behera utz dezakegu. Aldatuko balitz, ordea, laguntza gisa zera esango dizut: erabakia hartu duzu, jainko bat behar duzu».

Itzulpena alemanetik: Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *Die Frage, ob es einen Gott gibt*

Alejandra Pizarnik

MESFIDANTZA

Ama Errusiako baso xuri batez mintzo da: «… eta elur-panpinak egiten genituen eta birraitonari lapurtutako kapelak janzten genizkien…».

Nik mesfidati begiratzen nion. Zer zen elurra? Zertarako egiten zituzten panpinak? Eta, batez ere, zer zen birraitona bat?

Itzulpena gaztelaniatik: Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *Desconfianza*

EZPATAREN ETA HORMAREN ARTEAN

Murritza da ezpataren eta hormaren arteko tartea. Ezpatatik ihesi atzera egiten badut, hormarantz, paretaren hotzak izoztu egiten nau; hormatik ihesi kontrako noranzkoan aurrera egiten saiatzen banaiz, ezpata eztarrian sartzen zait. Bien artean bilatu nahi dudan beste zeinahi aukera, beraz, faltsua da, eta hala denez, salatu egiten dut. Bai hormak bai ezpatak xede bakarra dute, ni suntsitzea, nire heriotza, eta horregatik ez dut aukeratu nahi. Ezpata horma baino onberagoa balitz, edo hormak ezpataren ahoak baino gutxiago urratuko balu, hautua egin nezake; baina biak ikusten dituen edonork –ezpata, horma– ulertuko du berehala haien ezberdintasunak azalekoak direla soilik. Badakit ezinezkoa dela hormaren eta ezpataren arteko tarte laburrean bizitzen saiatu eta nire heriotza atzeratzea. Airea kutsatuta dago, gas eta partikula pozoitsuz betea: gainera, ezpatak ebaki txikiak egiten dizkit (nik lotsaren lotsaz ezkutatzen ditudanak), eta hormaren hotzak birikak ixten dizkit, baina nik eztul egiten dut, zuhur. Itzurtzerik lortuko banu (salbazio ezinezkoa), ezpata eta horma aurrez aurre leudeke, baina haien boterea, ni tartean egon gabe, horrenbeste txikiagotuko litzateke, ziurrenik horma eraitsi egingo litzateke, eta ezpata, lizundu.

Baina ez dago ihes egiteko abagunerik, eta ezpata engainatzen dudanean horma hazi egiten da, eta hormatik aldentzen naizenean ezpatak aurrera egiten du.

Saiatu naiz ezpata distraitzen jokoak proposatuta, baina azkarra da oso, eta eztarrirantz destatzeari uzten dionean, ahoa nire bihotzerantz zuzentzen du. Paretari dagokionez, egia da tarteka ahaztu egiten zaidala izotzezko pareta bat dela, eta, nekearen nekez, sostengua bilatzen dut bertan: egin bezain laster, heriotza hotzikara batek gogorarazten dit haren izaera.

Horrela bizi izan naiz azken hilabeteetan. Ez dakit zenbat denboraz saihestu ahal izango ditudan horma, ezpata. Tartea geroz eta estuagoa da, eta kemena ahitzen ari zait niri. Berdin dit nire patuak: biriketako kongestioak jota hilko ote naizen, edo zauriren batek odolustuta; horrek ez nau kezkatzen.

Baina behin betiko salatzen dut ezpataren eta hormaren artean ez dagoela bizitzeko tarterik.

Itzulpena gaztelaniatik: Ibai Sarasua Garcia

Jatorrizko testua: *Entre la espada y la pared*

Rocío Peñalta Catalán

AZKEN ELKARRIZKETA
(MENDEKU LITERARIOA)

–Uste dinat utzi beharko genukeela. Sentitzen dinat. Ez dun hik esandako edo egindako zerbaitegatik. Izan ere, oso gustura egon naun hirekin denbora honetan guztian. Oso polita izan dun. Esan dinat, hik ez dun ezer txarrik egin. Nirea dun arazoa. Neu naun. Ez zakinat... Larri nabilen, eta ezin dinat eskaini behar beste denbora. Ni baino hobea den norbait merezi dun. Zainduko hauen norbait. Benetan maiteko hauen norbait. Berehala topatuko dun beste norbait, seguru. Zoragarria haiz eta. Ikusiko dun. Arrain asko zagon itsasoan. Zera... ez zakinat. Uste dinat oraindik ez nagoela prest harreman bat izateko. Urrats bat gehiago egiteko. Ezin dinat honekin jarraitu. Ez dinat minik eman nahi, ez dinat nahi nigatik sufri dezanan, eta horrexegatik, pentsatu dinat hobe nuela lehenbailehen esatea. Dena den, lagun izaten jarrai zezakenagu. Ulertzen dinat hik tarte bat hartu beharra, baina harremanetan jarrai zezakenagu. Oso gogoko haunat. Primeran pasatzen dinat hirekin. Ez dinagu zertan utzi lagun izateari. Zer deritzon? Deituko didan, ezta?

–*Beatus ille. Tempus fugit. Carpe diem. Ubi sunt?*

Itzulpena gaztelaniatik.: Bego Montorio Uribarren

Jatorrizko testua: *Última conversación (venganza literaria), Andar por casa* liburuan

Mahmoud Shukair

ESTATUAK

Estatuek, zubi handian zut, kargua utzi dute bat-batean, dendek ateak ixten dituzten orduan, jendea nekatuta etxeratzen den unean.

Errege zaharrak koroa erantzi du, tronuari uko egin dio eta kalera irten da, Jainkoaren gainerako kreaturekin elkartzera.

Gazelak ezker-eskuin begiratu du kalea harrapariz libre dagoela ziurtatzeko, eta basorantz abiatu da ziztu bizian.

Bikotea besarkada betiereko batean txirikordaturik zegoen, baina hotel turistiko batera jo, eta edozein preziotako gela bat eskatu dio bertako harreragileari.

Bere horretan geratu den bakarra, hara, umetxoari bularra ematen dabilen amaren estatua izan da: haurra lo dauka, ez dio enbarazurik egin nahi titia oihal azpian gordez, ez ote duen loaldi goxotik esnatuko…

Itzulpena arabieratik: Lamia Filali-Mouncef Lazkano eta Arantzazu Royo Manterola.

Jatorrizko testua

Gonçalo M. Tavares

ADISKIDEA

Mutil pasiboa zen. Nagusiek esanak oro onartzen zituen. Hala ere, lausengaria zenez, gogaikarria ere bai.

Mihia moztu zioten: goraipatzeari utzi zion.

Gero, atzamarrak moztu zizkioten. Laudoriozko hitzak idazteari utzi zion.

Garaitsu hartan, egun batez, buruarekin mahaia joz, Morse kodean, nagusiei esan zien:

—Holako beste bat, eta adiskide bat galduko duzue.

Itzulpena portugesetik: Iñigo Roque Eguzkitza

Jatorrizko testua: *O amigo*

DUDA-MUDA

Baziren egun batzuk duda-mudan zegoela eskaileraren erdian: gora ala behera egin. Urteak joan, urteak etorri, duda-mudan segitzen zuen: gora ala behera?

Halako batean, eskailera erori egin zen.

Itzulpena portugesetik: Iñigo Roque Eguzkitza

Jatorrizko testua: *Hesitação*

Félix Fénéon

ALBISTEAK HIRU LERROTAN

Emilienne Moreauk, La Plaine-Saint Denisekoa, uretara bota zuen bere burua. Atzo, laugarren solairutik egin zuen salto. Bizirik da artean, baina jakinaraziko du.

*

Fournier andreak, Voisin jaunak eta Septeuil jaunak beren burua urkatu dute: neurastenia, minbizia, langabezia.

*

Jules Marty, josteko gaien saltzailea, 56 urte, eta haren emaztea, 38 urte, asfixiatu egin dira Saint-Ouenen. Miseria.

*

Iluntzean, Blandine Guérinek, Vaucé-koa (Sarthe departamentua), arropak erantzi zituen eskaileretan, eta, eskolako pareta bezain biluzik, putzurantz joan zen bere burua itotzera.

Itzulpena frantsesetik: Bego Montorio Uribarren

Jatorrizko testua: *Nouvelles en trois lignes*

Juan Rodolfo Wilcock

MAITALEAK

Haurux-ek eta Harix-ek erabaki dute ez direla gehiago ohetik altxatuko: ero moduan maitatzen dira, eta ezin dute hirurogei, hirurogeita hamar zentimetro baino gehiago aldenduta egon bata bestearengandik. Horregatik, onena ohean geratzea da, munduaren deietatik at. Oraindik telefonoa badago, argiaren mahian, eta batzuetan jo egiten du haien besarkadak eragozten: senitartekoak dira deitzen dutenak dena dagoen jakiteko. Era berean baina, dei horiek gero eta bakanagoak, gero eta lakonikoagoak dira. Maitaleak komunera joateko bakarrik jaikitzen dira, eta ez beti; ohea hankaz gora dago, maindireak higatuak, baina beraiek ez dira konturatzen, bata bestearen begien olatu urdinean murgildurik, haien gorputzak mistikoki korapilatuak.

Lehenbiziko astean galletatxoekin elikatu ziren, aldez aurretik pilatze oparoa eginda. Galletatxoak bukatu zirenez, elkar jaten dute orain. Desioagatik anestesiaturik, hortzekin haragi zati handiak erauziz, musu artean sudurra edo hatz txikia irentsi egiten dute, odola elkarri edanez, gero, aserik, berriro egiten dute amodioa, ahal duten moduan, eta lokartzen dira hasteko berriz esnatzen direnean. Egun eta orduen kontaketa galdu dute. Ikusteko ez dira atseginak, hori egia da, odoldurik, laurdenkaturik, likatsurik baitaude; baina beren amodioa konbentzioez harago dago.

Itzulpena gaztelaniatik: Carmen Valois

Jatorrizko testua: *Los amantes*

Daniil Kharms

KOADERNO URDINA 10. ZK.

Bazen behin gizon ilegorri bat, zeinak ez baitzuen ez begirik eta ez belarririk. Ilerik ere ez zuen, eta, ilegorri ohituraz besterik ez zioten deitzen.

Ezin zuen hitzik egin, ez baitzuen ahorik. Sudurrik ere ez zuen.

Ez zuen ezta eskurik ezta hankarik ere. Eta sabelik ere ez zuen, eta bizkarrik ezta ere, bizkarrezurrik ere ez, eta barrenkirik ere ez zuen batere. Deus ere ez zuen! Hortaz, ezin ulertu zertaz ari garen.

Hobe, beraz, ez badugu gehiago hartaz hitz egiten.

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte Zubillaga

Jatorrizko testua: *ГОЛУБАЯ ТЕТРАДЬ N% 10*

LOA PERTSONA BATI TRUFAKA

Markov, botak kendu eta, hasperen eginez, dibanean etzan zen.

Lo egin nahi zuen, baina begiak itxi orduko, lotarako gogoa istantean pasatu zitzaion. Begiak ireki eta eskua libururantz luzatu zuen, baina loa abailan etorri zitzaion berriz, eta, liburua hartzera ailegatu aurretik, atzera etzan eta begiak itxi zituen. Baina begiak ixten hasterako, logaleak alde egin zion berriro, eta pentsamendua hainbeste argitu zitzaion, non gai izan baitzen bi ezezaguneko ekuaziodun aljebra-ariketak buruz egiteko.

Luzaz egon zen ez aurrera ez atzera, nahigabetan: lo egin ala esna mantendu? Azkenean, erabat gogaituta eta bere burua gorrotatuz, gabardina eta kapela jantzi, bastoia eskuan hartu eta kalera irten zen Markov. Haizeño freskoak lasaitu egin zuen, barrenak alaitu zitzaizkion eta berriro ere bere gelara itzultzeko gogoa izan zuen.

Gelara sartutakoan, gorputzean neke gozo bat sentitu zuen eta logaletu egin zen. Baina dibanean etzan eta begiak itxi orduko, logalea istantean lurrundu zen.

Amorruaren amorruz jaiki zen salto batez Markov dibanetik, eta ez kapela ez beroki, arin bai arin abiatu zen Tauridear lorategirantz.

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte Zubllaga

Jatorrizko testua: *СОНДРАЗНИТ ЧЕЛОВЕКА*

GALDERA

— Bai al da munduan zerbait, esanahia izanen lukeena eta are gertakarien joana aldatu lezakeena, ez bakarrik Lurrean baizik eta baita beste munduetan ere? —galdetu nion neure maisuari.

— Bai, bada —erantzun zidan maisuak.

— Eta zer da? —galdetu nik.

— Zera da... —hasi zen nire maisua, eta kolpean isildu zen.

Zutik egon nintzen, eta eginahal betean itxaron nuen bere erantzuna. Eta bera isilik.

Ni zutik eta isilik.

Eta bera isilik.

Eta ni zutik eta isilik.

Eta bera isilik.

Biok zutik eta isilik.

O, la-la!

Biok zutik eta isilik.

E, le-le!

Bai, bai, biok zutik eta isilik.

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte Zubillaga

Jatorrizko testua: Bonpoc

MUNDUA KONPONTZEN

Bazen behin zientzialari bat munduko arazoekin kezkatuta bizi zena. Bera beti prest zegoen arazoon konponbideak bilatzeko. Egunak igarotzen zituen bere laborategian, zalantzak argitu nahian.

Halako egun batean, langelan sartu zitzaion 7 urteko semea, laguntzeko prest. Zientzialariak, bat-bateko etenaldi harekin urduri, haurrari eskatu zion beste toki batera joateko jolastera.

Ikusirik ezinezkoa zela hura handik ateratzea, aitak pentsatu zuen zerbait behar zuela hari emateko, burua beste zerbaitetan ibil zezan. Bat-batean, aldizkari batekin topo egin zuen, munduko mapa bat zekarrena; horixe behar zuen berak, hain justu ere. Guraize batzuk hartu, mapa zenbait zatitan moztu, eta semeari eman zion, zinta itsasgarri batekin batera, zera esanez:

—Buru-hausgarriak maite dituzunez, mundua apur-apur eginik emango dizut, eta inoren laguntzarik gabe konpondu beharko duzu.

Orduan, kalkulatu zuen txikiak hamar egun beharko zituela mapa osatzeko, baina ez zen hala izan.

Zenbait orduren buruan, haurraren ahotsa entzun zuen, berari deika, bare-bare.

—Aitatxo, aitatxo, egin dut dena, lortu dut bukatzea.

Aitak, hasieran, ez zion sinetsi!

Adinarengatik, pentsatu zuen ezinezkoa izango zitzaiola mapa berriz osatzea, aldez aurretik halakorik sekula ikusi gabea baitzen. Fidagaitz, zientzialariak begirada altxatu zuen: ziur zegoen haur bati zegokion lana ikusiko zuela. Haren harridurarako, ordea, mapa osatuta zegoen. Semeak zegokion tokian jarria zuen puska bakoitza. Nola zitekeen? Nola lortu zuen?

Orduan, galdetu zion, harriturik:

—Semetxo, zuk ez baitzenekien nolakoa zen mundua, nola lortu duzu?

—Aitatxo —erantzun zion haurrak—, nik ez nekien nolakoa zen mundua, baina, mapa aldizkaritik atera zenuenean hura mozteko, gizon baten irudia ikusi nuen beste aldetik. Orduan, orri-zatiak ahuspez jarri, eta gizona osatzen hasi nintzen, hura bai bainekien nolakoa zen. Gizona atondu nuenean, orriari buelta eman, eta ohartu nintzen mundua konpondua nuela.

Itzulpena gaztelaniatik: Amaia Apalauza Ollo

Jatorrizko testua: *Arreglar el mundo*

Enrique Anderson Imbert

ESPIRALA

Goizaldean itzuli nintzen etxera, nekeak jota. Sartzerakoan, ilun guztia. Inor ez esnatzeko oin-puntetan egin nuen aurrera eta nire logelara ematen zuen eskailera kiribileraino iritsi nintzen. Oina lehenengo mailan jarri orduko, duda egin nuen hura nire etxea ote zen ala nire etxearen oso antzeko bat. Eta igotzen ari nintzela, uste izan nuen beste mutiko bat, nire gisako bat, egongo zela nire logelan lo eta akaso ni amesten eskailera kiribiletan gora nindoala. Azken bira egin, atea ireki, eta han zegoen bera, ala ni, Ilargiaren argitan, ohean eserita, begiak zabal-zabalik. Une batez elkarri begira geratu ginen adi-adi. Irri egin genion elkarri. Sentitu nuen haren irribarrea nik ahoan nuen berbera zela: ispilu batean nola, faltsua zen bietako bat. «Nork amesten du nor?», oihu egin zuen gutako batek, edo biok batera beharbada. Une hartan oinkadak entzun genituen eskailera kiribilean: salto batez bata bestearen baitan sartu ginen eta horrela bat eginik hasi ginen gora zetorrena amesten, zeina ni bainintzen berriz.

Itzulpena gaztelaniatik: Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *Espiral*

Luis Felipe Lomelí

EMIGRANTEA

–Ezer ahazten duzu?

–Oxala!

Itzulpena gaztelaniatik:. Garazi Ugalde Pikabea

Jatorrizko testua: *El emigrante*

Régis Jauffret

ITSAS ERDIAN

Ez ditugu objektutzat gure seme alabak, bai ordea, gure bihotzean sailkaturik, hiztegi entziklopediko baten doitasun berberarekin. Bakoitzak 9 metro karratuko logela dauka, izkina batean dutxa bat eta konpositezko konketa txiki batekin.

Guk bigarren solairua daukagu hartuta; bertan badago gela antzeko bat, manpara mugikor batek bereizten dituen bi ohe berdinekin; saloi bat, lanparatxo batzuk argiztaturiko bi besaulkik hornituta, konketa bikoitza, bi bainuontzi dituen bainugela, zeinetan, leiho zabalak etxe zaharrez osatutako sorta erakusten duen, eta han urrunean, hipodromoan, Gran Prix egunen joan etorriekin batera bistaratu dezakegun XIX. mende bukaerako lehendabiziko argazki koloredunetatik ihes egindakoa dirudien gizarte kapeladun baten garapena.

—Nik ez daukat nire emaztearen estruktura mental bera.

Bat egiten duen bikote izatearen inguruan sekula ez dugu gure artean eztabaidatu. Begirune handia diogu elkarri eta hitz egiterakoan, ederki ulertzen dugu elkar. Lehendabiziko aldiz ikusten gaituztenek urruneko lagunak garela uste izaten dute. Kaletik ez gara elkarrekin joaten, gehienetan bata bestearen aurretik, jendea gure artetik pasa dadin leku aise utzirik.

Bide desberdinak hartzen ditugu zinemara joateko edota etxera bueltatzeko. Beharrik ez badago, ez gara bata bestearengana hurbiltzen, ez dezagun anabasarik edota gaizki ulerturik eragin. Horiek bait dira gatazka, krisi eta bikote-bereizketaren jatorriak. Gure loturak iraungo duelakoan bait gaude.

—Porrot batek umiliaziora eramango gintuzke.

Bakoitza bere aldetik goaz oporretara, hainbat itsasok bereizitako globoaren tokietan dauden banakako gelatan egiten dugu lo, edota noizean behin gurutzatu bai, baino inoiz portu berera helduko ez diren pakebotetako kabinatan. Haurrak etxean gelditzen dira neska gazte baten zaintzapean, eta bor borrean dagien beraien energia guztia lorategiaren hondoan prestatu genien jolastoki batean askatzen dute.

Udako lehen eguna ospatzeko asmoarekin, ekainaren 21garrenero familia osoa bildu eta pozarren ohartzen gara beraien hazkuntzaren eta baita mintzaeraren garapenaz ere. Maitekiro besarkatzen ditugu baita oparo eman ere, geratzen den urte hondarrerako baliozko izango zaizkien aholkuak.

Itzulpena frantsesetik: Ines Castiella Imaz

Jatorrizko testua: *Haute mer, Microfictions* liburuan

Marie-Reine Castonguay

TSUNAMIA

Gustura nago. Uretan. Urrunean, doinu bat entzun dut, ahots ezti-ezti bat. Kulunkan murgildu naiz. Mmmm.... Mmmmmm... Aahhh! Zer da hori? Lur ikara bat? Ohhh!! Ez! Ama ikara bat. Hemendik irten behar dut. Jaio egin behar dut.

Itzulpena frantsesetik: Sara Goiria Egidazu

Jatorrizko testua: *Tsunami*